

2010-10-27an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA

SESIÓN DEL PLENO DE LA  
CORPORACIÓN. Día 27 -10-2010

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Pedro Lasagabaster Armendáriz  
Zinegotziak

Dorleta Leceta Uribetxebarria.  
Edorta Barandiaran García  
Ander Agiriano Errasti  
Begoña Eraña Lazkano  
Carmelo Leceta Abásolo  
Juan Luis Merino Sanabria  
Ignacio Pierrugues Barberán  
Unai Salaberria Múgica

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamarreko urriaren hogeita zazpian, arratsaldeko seietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Pedro Lasagabaster Armendariz alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira bertan izan Urrutia jauna eta Otamendi andrea.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas del día veintisiete de octubre de dos mil diez, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Pedro Lasagabaster Armendariz, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten el Sr. Urrutia y la Sra. Otamendi.



Eskoriatzan, bi mila eta hamarreko urriaren hogeita zazpian, arratsaldeko seietan, elkartu da **ESKORIATZAKO INDUSTRIALDEA S.A.**-ko akziodunen Batzar Nagusia sozietateko helbidean. Akziodunen Batzar Nagusia Eskoriatzako udalbatzarkideek osatzen dute eta behar bezala deitu zen estatutu sozialetako 14. artikulua agintzen duenari jarraiki. Batzarkide hauek bildu ziren: Pedro Lasagabaster Armendariz jauna, Dorleta Leceta Uribetxebarria andrea, Edorta Barandiaran Garcia jauna, Begoña Eraña Lazkano andrea, Carmelo Leceta Abasolo jauna, Juan Luis Merino Sanabria jauna, Ignacio Pierrugues Barberan jauna eta Unai Salaberria Mugica jauna. Batzarrean dauden 8 kideek kapital sozialaren % 72,72a ordezkatzen dute.

Batzordeburu Pedro Lasagabaster Armendariz jauna da eta idazkari, batzarrera joandako akziodunek izendatuta, Udalbatzarreko idazkari Eburne Iturbe Lascurain andrea. Gai-zerrendako gaiak aztertzen hasi dira:

#### **1.- Administrazioaileek prestatutako 2010eko urteko kontuak aztertzea, eta hala badagokio, kontuak onartzea.**

2010eko ekitaldian gertaturiko gauzarik nagusienei buruzko azalpen laburra egin ondoren, bazkideek aho batez onartu dituzte 2010eko ekitaldiko Urteko Kontuak.

Bai Memoria, bai Balantzea eta bai Irabazi-Galeren Kontua, dokumentazio sozialean agertzen dira, Administrazio-Kontseiluak sinatuta; gauza bera ez errepikatzearen ez ditugu hona transkribatu.

#### **2.- Eskoriatzako Industrialdea S.A. desegin eta kitzeari buruzko erabakia.**

Eskoriatzako Industrialdea S.A.ren akziodunen batzar orokorrak, 2010eko urriaren 27an egindako batzarrean, 8 akziodunen aldeko botoekin, sozietateko kapitalaren % 72,72a osatzen dutenak, ondorengo erabakiak hartu zituen:

- 1) **ESKORIATZAKO INDUSTRIALDEA S.A.** sozietatea desegitea eta likidatzea.
- 2) 2010eko urriaren 26an itxitako desegite-likidazio balantzea onartzea, elkarteko kontseilari guztiek onetsita.

Udala denez sozietatearen akziodun bakarra eta sozietatearen aurka 861.611,47 €-ko kreditua duenez, kreditu horren ordainetan Udalarari esleitzen zaizkio aktiboetan agertzen diren hiru eraikinak, hain zuzen ere, honako hauek:

- ESTEIBAR barrutian, Eskoriatzako udalerrian, dagoen soroa, errepide nagusiaren eta Deba ibaiaren artean kokatuta. Bergarako Jabetza Erregistroan horrela jasota: 112. liburua, 662. liburukia, 141. orria eta 3712. Eskoriatzako lursail zenbakia. Balantzean 70.735,50 eurotan baloratua.
- TORREBASON, Eskoriatzako jurisdikzioan, soro bat. Bergarako Jabetza Erregistroan horrela jasota: 100. liburua, 592. liburukia, 224. orria eta 1678. Eskoriatzako lursail zenbakia. Balantzean 14.159,84 eurotan baloratua.
- 4 ZENBAKIKO LOKALA: Bigarren industria-nabean lau zenbakia duen lokala. Oinplanoan berrehun eta berrogeita hamar metro koadro ditu, zazpi metro eta



laurogeita hamar zentimetroko altuera librearekin, gehi behe-solairuko eta lehenengo solairuko bulegoetarako gorputz irtena, hogeita hiru metro koadro guztira. Bergarako Jabetza Erregistroan honela jasota dago: 112. liburua, 662. liburukia, 129. orria eta 6309. Jabetza horizontala-Eskoriatza lursail zenbakia. Balantzean 206.637,33 eurotan baloratua.

Beraz, ez da existitzen bazkide bakarrari ordaindu beharreko kuota likidorik.

3) Elkarteko administrazio kontseiluko kide guztiak kargutik kentzea, hain zuzen ere, honako hauek:

PEDRO LASAGABASTER ARMENDARIZ jauna  
DORLETA LEZETA URIBETXEBARRIA andrea  
CARMELO LEZETA ABASOLO jauna  
EDORTA BARANDIARAN GARCIA jauna  
IGNACIO PIERRUGUES BARBERAN jauna

4) Kitatzaile Pedro Lasagabaster Armendariz jauna izendatzea, adinez nagusia, Eskoriatzan bizi dena, Iturralde baserrian, 16.300.882-T NAN duena. Berak izango du sozietatearen liburuak eta dokumentuak gordetzeko ardura, eta berari ematen zaio ahalmena ematea aurreko erabakiak publiko egin eta probintziako merkataritza-erregistroan eta Bergarako Jabetza Erregistroan inskribatu arte egin beharreko gestioak egiteko, eta erabaki horiek edozein akats izanez gero edo zerbait falta, horiek konpondu, osatu eta zuzentzeko

5) Erabaki hau Merkataritza-erregistroko aldizkari ofizialean eta BERRIAn argitaratzea.

### **3.- Akta irakurri eta onartzea.**

Eta beste gairik ez dagoenez, bukatutzat eman da bilera, eta akta hau jaso da, gero batzarkideek onartu eta sinatu dutena.

**ESKORIATZAKO INDUSTRIALDEAKO Akziodunen Batzar Orokorra amaituta, 18:19an Salaberria jaunak pleno aretoa utzi du, ondoren Udalbatzarrak ohiko bilkurako gaiak landuko ditu.**

### **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

2010/05/26an egindako osoko bilkurako akta onartu da.

2010eko irailaren 29ko akta ez da onartu, eta datorren bilkuran erabakitzeko gelditzen da bilkura honetan Pierrugues jaunak egindako eskaera: aktan jasotzea SUKIBIDEk erreklamaturako fakturari buruz 2010eko ekainaren 3an Hazienda batzordeko aktan jasotakoa.

Akta horren gainean ere erabaki da Ezker Batuaren eskariz eztabaidatutako mozioaren testua sartzea eta baita Pierrugues jaunak Otamendi andreari "Luis Ezeiza Herri Eskolan dagoen



*etxebizitzaren erabilera pribatua esleitzeko prozedura irekitzea. Baldintza juridikoen eta ekonomikoen agiria onartzea*“ gaiari buruz emandako erantzuna ere.

**18:35ean Agiriano jauna etorri da bilkurara.**

## **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK ETA ERABAKIAK.**

### **3.1.- ERABAKIAK**

Berriaz, ondorengo erabakien berri eman du Alkateak:

- **ALKATEAREN ERABAKIA**

**ZENBAKIA:** B10/00753

**DATA:** 2010/10/15

**GAIA:** KREDITU HABILITAZIO ESPEDIENTEA ONARTZEA

**ESPEDIENTEA:** 2010eko aurrekontuari egindako 14. kreditu aldaketa

**INTERESDUNA:**

*Idazkari-kontuhartzaileak 2010eko aurrekontuari egindako 14. kreditu aldaketaren onarpen espedientea idatzi du (Kreditu Habilitazio motakoa).*

*Espedientea osatzen duten dokumentuak ikusi eta egokiak iritzita, Alkate naizen honek honako hau*

**ERABAKI DUT**

*1.- Kreditu-Habilitazio espedientea onartzea (2010eko aurrekontuari egindako 14. kreditu aldaketa), sarrera finalisten diru-bilketaren ondorioz sortutakoa. Guztira, 55.898,57 €.*

*Eskoriatzan, 2010eko urriaren 15ean.*

**ALKATEAREN ERABAKIA**

**ZENBAKIA:** B10/00755

**DATA:** 2010/10/15

**GAIA:** KREDITU HABILITAZIO ESPEDIENTEA ONARTZEA



**ESPEDIENTEA:** 2010eko aurrekontuari egindako 15. kreditu aldaketa

**INTERESDUNA:**

*Idazkari-kontuhartzaileak 2010eko aurrekontuari egindako 15. kreditu aldaketaren onarpen espedientea idatzi du (Kreditu Habilitazio motakoa).*

*Espedientea osatzen duten dokumentuak ikusi eta egokiak iritzita, Alkate naizen honek honako hau*  
**ERABAKI DUT**

*1.- Kreditu-Habilitazio espedientea onartzea (2010eko aurrekontuari egindako 15. kreditu aldaketa), sarrera finalisten diru-bilketaren ondorioz sortutakoa. Guztira, 38.135,59 €.*

*Eskoriatzan, 2010eko urriaren 15ean.*

### 3.2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK

#### 3.2.1. Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamentuarekin sinatutako lankidetzaz hitzarmena San Juan kaleko azken zatia urbanizazio lanak egiteko.

Goiburuan aipatutako hitzarmena 2007an sinatu zen eta Udalak bere betebeharrak guztiak bete ondoren, Alkateak jakinarazi du, oraindik ere, gaur egun, eta inolako azalpen formalik eman gabe, Aldundiak gutxi gorabehera 150.000 euro ordaintzeko dituela. Erantsi du asko saiatu ondoren lortu dutela jakitea ez ordaintzearen arrazoia likidezia eza izan dela, eta Foru Aldundiko diputatuarekin izandako bileran batean honek ordainketa 2011ko lehen hiru hilabeteetan egiteko konpromisoa hartu zuela. Foru Aldundiari eskatu zaio konpromiso hori hartu eta idatziz bidaltzeko.

#### 3.2.1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren erantzuna egoitzaren zerbitzua udal zerbitzu bihurtzeari buruz.

Egoitzaren zerbitzua udal zerbitzu bihurtzearen alde udalbatzarrak hartutako erabakiari buruz Aldundiaren iritzia ezagutzeko Patronatuak egindako kontsulta dela-eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak Mesedetako Amaren Egoitzako Patronatoari emandako erantzunaren berri eman du Alkate jaunak.

Ondoren jasotzen da hitzez hitz Aldundiak emandako erantzuna:

*Joan den maiatzaren 27an Eskoriatzako alkatearekin Txara2n izandako bileran jakinarazi genion 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, 27. artikuluan argi eta garbi bereizten dituela foru aldundien eta udalen eskumenak. Beste alde batetik, 22. artikulua, gizarte zerbitzuen euskal sistemaren prestazioen eta zerbitzuen katalogoari buruzkoak, xedatzen du adinekoentzako egoitzak bigarren mailako zerbitzuak direla, eta beraz, foru aldundien eskumenekoak. Gure ustez, beraz, udalaren eskumenean artean ez daude adinekoen egoitzak, eta, beraz, horrekin bat ez datorren edozein erabaki gizarte zerbitzuen 12/2008 Legearen aurkakoa izango da.*



### **3.- GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.**

Dagokien batzorde infomatzailen diktamenik ez dagoenez batzordeetan quorumik egon ez delako, Udalbatzarrak aho batez berretsi du ondorengo gaiak gai zerrendan sartzea

5.- Etxez etxeko zerbitzua: Aldi baterako esleipena eta prozedura irekiz egin beharreko kontrataziorako espediente berri bat hastea.

6.- Eskoriatzako Udalaren titularitateko hainbat ikastetxe eta udal bulego garbitzeko zerbitzua: Prozedura irekiz kontratazioa egiteko espedientea hastea.

10.- Leintz Udal Euskaltegirako egungo udal ordezkaria kargutik kentzeko eta ordezkari berria izendatzeko proposamena.

11.- Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteko Kontseilu Errektorako Eskoriatzako Udaleko ordezkariak izendatzea.

12.- 2011ko ordenantza fiskalak hasiera batean onartzea.

14.- Datu pertsonalen fitxategiak sortu, aldatu eta ezabatzeari buruzko erabakia.

15.- Leintz Ibarraundi Fundazioa desegin eta kitatzeko proposamena.

### **4.- TXUKUNBERRI OSOKO ZERBITZUAK S.L.REKIN LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA.**

Lezeta andreak hala eskatuta, gaia mahai gainean gelditu da.

### **5.- ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA: ALDI BATERAKO ESLEIPENA ETA PROZEDURA IREKIZ EGIN BEHARREKO KONTRATAZIORAKO ESPEDIENTE BERRI BAT HASTEA.**

Udalbatzarraren 2005eko irailaren 29ko erabakiz etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kudeaketa GIZADI ELKARTEA enpresari esleitu zitzaion.

Kontratu horren iraupena URTEBETEKOA zen 2005eko azaroaren 10etik kontatzen hasita, eta urtebeteko luzapenak egiteko aukera zegoen, gehienez ere bost urte egin arte guztira. Horiek horrela, kontratuaren indarraldia datorren azaroaren 9an amaitzen da.

Kontuan izanik beharrezkoa dela zerbitzua etenik gabe ematen jarraitzea, GIZADI ELKARTEA enpresarekin batera erabaki da zerbitzua aldi baterako ematen jarraitzea, kontratazio espediente berria tramitatu eta erabaki arte.

Aurrez esandakoan oinarrituz, eta bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** 2005ko irailaren 29ko erabakiz GIZADI ELKARTEA enpresari etxez etxeko laguntza zerbitzua kudeatzeko esleitutako kontratua amaitutzat jotzea 2010eko irailaren 9ko ondorioekin.



**Bigarrena.-** Kontratazio espediente berria tramitatzen den bitartean, eta prozedura ireki bidez kontratua berriz esleitzeko espediente erabaki arte, zerbitzua GIZADI ELKARTEA enpresari esleitzea indargabetutako kontratuaren baldintza beretan. Kontratu berriaren prezioa 14,31 euro/orduko izango da.

**Hirugarrena.-** Etxez etxeko laguntza emateko zerbitzua prozedura irekiz kontratatzeko espediente onartzea eta baita baldintza ekonomiko eta administratibo partikularren eta baldintza teknikoaren agiriak ere.

**Laugarrena.-** Esleipena egiteko prozedurarako deialdia egitea GAO on iragarkia jarrita.

**Bosgarrena:** Gastua onartzea dagozkion urteetako aurrekontuen kargura.

**Seigarrena:** Kontratazio Mahaiko kide Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileko kide diren zinegotziak izendatzea.

## **6.- ESKORIATZAKO UDALAREN TITULARITATEKO HAINBAT IKASTETXE ETA UDAL BULEGO GARBITZEKO ZERBITZUA: PROZEDURA IREKIZ KONTRATAZIOA EGITEKO ESPEDIENTEA HASTEA.**

Hirigintzako Batzorde Informatiboak egindako proposamenarekin bat etorriz, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Eskoriatzako Udalaren titularitateko hainbat ikastetxe eta udal bulego garbitzeko zerbitzua prozedura irekiz kontratatzeko espediente onartzea eta baita baldintza ekonomiko eta administratibo partikularren eta baldintza teknikoaren agiriak ere.

**Bigarrena.-** . Esleipena egiteko prozedurarako deialdia egitea, horretarako iragarkia jarritz GAO on eta kontratatzailearen profilean.

**Hirugarrena.-** Gastua onartzea dagozkion urteetako aurrekontuen kargura.

**Laugarrena.-** Kontratazio Mahaiko kide Hirigintza batzorde informatiboko kide diren zinegotziak izendatzea.

## **7.- DORLETAKO AMA TXIRRINDULARI ESKOLARI DIRU LAGUNTZA.**

Idazkari-kontuhartzaileak, halaber, idazkari-kontuhartzaileak, halabeharrez, diru laguntza legez kanpoko delat ohartarazi du, diru laguntza emateko proposamena azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak aurreikusitako prozeduretatik kanpo egin baita; hala ere, Kultura batzorde informatzaileak egindako proposamenen arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Dorletako Ama Txirrindularitza Eskolari 400 euroko diru laguntza ematea 2010eko urtarrilean egindako mediku azterketen gastuak ordaintzeko. Emandako diru laguntza berehala ordaintzea.

**Bigarrena.-** Gastua onartzea 0406.481.452.10.01 partidaren kontura, eta ordainketa berehala egiteko agintzea.



**Hirugarrena.-** Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

#### **8.- SENZALA EUSKADI CAPOEIRARI DIRU LAGUNTZA.**

Idazkari-kontuhartzaileak, halaberrez, diru laguntza legez kanpoko delako ohartarazi du, diru laguntza emateko proposamena azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak aurreikusitako prozeduretatik kanpo egin baita; hala ere, Kultura batzorde informatzaileak egindako proposamenen arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** SENZALA EUSKADI CAPOEIRARI 300 euroko diru laguntza ematea musika tresnak erosteko. 180 euro berehala ordaintzea. Emandako diru laguntza zertarako erabili den behar bezala zuritutakoan ordainduko da gainontzeko diru kopurua.

**Bigarrena.-** Gastua onartzea 0406.481.452.10.01 partidaren kontura, eta ordainketa egiteko agintzea.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

#### **9.- LEINTZ ESKOLA KIROLARI DIRU LAGUNTZA.**

Idazkari-kontuhartzaileak, halaberrez, diru laguntza legez kanpoko delako ohartarazi du, diru laguntza emateko proposamena azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak aurreikusitako prozeduretatik kanpo egin baita; hala ere, Kultura batzorde informatzaileak egindako proposamenen arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Leintz Eskola Kirolari 6.759 euroko diru laguntza ematea 2009-2010 ikasturtean izandako gastuak ordaintzeko. Emandako diru laguntza berehala ordaintzea.

**Bigarrena.-** Gastua onartzea 0406.481.452.60.01 partidaren kontura, eta ordainketa egiteko agintzea.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

#### **10.- LEINTZ UDAL EUSKALTEGIRAKO EGUNGO UDAL ORDEZKARIA KARGUTIK KENTZEKO ETA ORDEZKARI BERRIA IZENDATZEKO PROPOSAMENA.**

Kultura batzorde informatzaileak egindako proposamena ikusita eta Merino jaunaren eta Eraña andrearen abstentzioekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Leintz Udal Euskaltegiko batzorde gestio gilean duen kargutik kentzea Aitor Urrutia Oianguren jauna .

**Bigarrena.-** Dorleta Leceta Uribe txebarria andrea Leintz Udal Euskaltegiko batzorde gestio gileko udal ordezkari berria izendatzea.





## **11.- GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK KOOPERATIBA ELKARTEKO KONTSEILU ERREKTORERAKO ESKORIATZAKO UDALEKO ORDEZKARIAK IZENDATZEA.**

Kultura batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Ondoren adieraziko diren zinegotziak Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteko Kontseilu Errektorera Eskoriatzako Udaleko ordezkari izendatzea, bata titularra eta bestea ordezkoa.

Titularra: Pedro Lasagabaster Armendariz  
Ordezkoa: Edorta Barandiaran García

## **12.- 2011KO ORDENANTZA FISKALAK HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Bertaratutako zinegotzi guztiek dute Hazienda batzorde informatzaileak 2011. urterako ordenantza fiskalei buruz egindako diktamenaren kopia.

Diktamenari buruz eztabaidatu ondoren, Alkateak bototara jarri du aipatutako diktamena.

Pierrugues jaunaren aurkako botoarekin eta gainontzeko udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** 2011rako ordenantzei buruz Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamena hasiera batean onartzea (Eranskin gisa doa).

**Bigarrena:** Telefono mugikor zerbitzuak ematen dituzten enpresek udalaren jabari publikoaren erabilera pribatua eta aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasa arautzen duen ordenantza fiskala hasiera batean onartzea.

**Hirugarrena.-** Hartutako erabakiak jendaurrean jartzea 30 lanegunez nahi duenak erreklamazioak edo oharra egin ditzan.

**Laugarrena.-** Hartutako erabakiak eta Ordenantzen aldaketak eta Eranskinak behin betikoak izango dira, berriro erabakirik hartu gabe, jendaurrean erakusten den epean inolako erreklamaziorik egiten ez bada.

## **13.- ESKORIATZAKO INDUSTRIALDEA S.A.K ZORREN ZATI BAT ORDAINTZEKO ESKORIATZAKO UDALARI EMANDAKO HIGIEZINAK ONARTZEA.**

Ez da bidezkoa erabakirik hartzea, elkartea desgiterakoan zuzenean Udalaren esku geldituko direlako biltegirako erabiliko den lokala eta lursaila.

## **14.- DATU PERTSONALEN FITXATEGIAK SORTU, ALDATU ETA EZABATZEARI BURUZKO ERABAKIA.**

Bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoekin ondorengo erabakiak hartu dira:

**ZIOAK AZALTZEA.**



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (DBLO) 20. artikulua xedatzen du Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratutako xedapen orokor baten bidez baino ezingo direla sortu, aldatu edo ezabatu Administrazio Publikoen titulartasunekoak diren datu pertsonalen fitxategiak. Xedapen orokor horren edukia ere artikulua horretan dago ezarrita.

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen (DBEBL) 18. artikulua Datuak Babesteko Erregistroa sortu du eta lege horren ezarpen eremuko fitxategiak erregistro horretan inskribatu behar direla ezartzen du.

Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legea garatzen duen urriaren 18ko 308/2005 Dekretuaren 2. artikulua ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek datu pertsonalen fitxategiak sortu, aldatu edo ezabatzeko egindako eragiketen berri emango diotela Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, Datuak Babesteko Erregistroan inskripzioa egiteko. Erabakia edo xedapena jakinarazteko, DBEBren zuzendariaren 2005eko uztailaren 21eko Ebazpenaren bidez onartu zen eredu normalizatua erabiliko da (2005eko abuztuaren 31ko 165 zk.ko EHAA).

2005eko irailaren 29an Udalbatzarrak hartutako erabaki bidez ondorengo fitxategiak sortu ziren:

ERREZIBOAK EGITEA. B.K.G. 19 (Oinarrizkoa GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
ZERGABILKETA (Ertaina GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
ZINEGOTZIEN ERREGISTROA (Ertaina GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
TASA ETA ZERGEN GESTIOA (Ertaina GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
ESPEDIENTEEN GESTIOA (Ertaina GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
SARRERA-IRTEEREN ERREGISTROA (Ertaina GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
UDALEKO BIZTANLEEN ERROLDA (Ertaina GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
POLIKIROLDEGIA (Ertaina GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
ONDASUN HIRITAR HIGIEZINAK (Ertaina GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
ONDASUN LANDATAR HIGIEZINAK (Ertaina GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
JARDUERA EKONOMIKOAK (Ertaina GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
KANPOSANTUA (Oinarrizkoa GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
HIRIGINTZA LIZENTZIAK (Oinarrizkoa GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
BESTE BATZUK SIGEN (Oinarrizkoa GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
MUGIMENDUAK SIGEN (Ertaina GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
KULTURA SUSTAPENA (Oinarrizkoa GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
HIRITARRENTZAKO ARGIBIDEAK (Oinarrizkoa GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
IZATEZKO BIKOTEEN ERREGISTROA (Ertaina GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
NOMINA (Ertaina GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
LUDOTEKA (Oinarrizkoa GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
BIBLIOTEKA (Oinarrizkoa GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
EUSKARAREN SUSTAPENA (Oinarrizkoa GAO - 2005/10/18 - 197. zenbakia).  
GIZARTE-ZERBITZUAK (Goi-mailakoa GAO - 2005/12/13 - 197. zenbakia).

Ondoren, Udalbatzarraren 2006ko abenduaren 26ko erabakiz ondorengo fitxategia sortu zen

1. AHOZKO ONDAREAREN ARTXIBOA (Ertaina GAO - 2007/02/14 - 32. zenbakia).



Ondoren ikusi da HIRIGINTZA LIZENTZIAK izeneko fitxategia bikoiztuta dagoela, bertako datuak ESPEDIENTEEN GESTIOA izeneko fitxategian ere agertzen baitira.

Ondorengo fitxategiak bateratzeko beharra ere kontuan hartu da:

- ONDASUN HIRITAR HIGIEZINAK ETA ONDASUN LANDATAR HIGIEZINAK izeneko, izan ere, higiezinaren izaera aldatzen baldin bada ere, datu pertsonalen edukia, helburua, datuen jatorria, afektatutako kolektiboa eta segurtasun maila bera dira.
- BESTE BATZUK SIGEN eta MUGIMENDUAK SIGEN

Era berean, Udalak zerbitzu berriak bere gain hartu izanak, -besteak beste, isunen kudeaketa zuzena, txakur arriskutsuen erregistroa sortzea eta gazteleku zerbitzua ematea-, datu pertsonalen fitxategi berriak sortzea eskatzen du.

### **1.- Aplikazio eremua:**

Xedapen honen bidez Eskoriatzako Udalak kudeatzen dituen datu pertsonalen fitxategiak arautzen dira.

### **2.- Datu pertsonalen fitxategiak sortzea.**

Datu pertsonalen ondorengo fitxategiak sortzen dira, eta horien zehaztasunak dagokion eranskinean jasotzen dira:

ONDASUN HIGIEZINAK

GAZTELEKUA

ISUNAK

ANIMALIA ARRISKUTSUAK

GEIZ (SIGE)

### **3.- Datu pertsonalen fitxategiak kentzea**

Datu pertsonalen ondorengo fitxategiak kentzen dira:

ONDASUN LANDATAR HIGIEZINAK

ONDASUN HIRITAR HIGIEZINAK

HIRIGINTZA LIZENTZIAK

BESTE BATZUK SIGEN

MUGIMENDUAK SIGEN

### **AZKEN XEDAPENAK**

Lehenengoa.- Kentzen diren fitxategiek sortutako xedapenak indarrik gabe gelditzen dira.

Bigarrena.- Indarrean dirauten datu pertsonalen fitxategiak:



Ondoren zerrendatuko diren datu pertsonalen fitxategiek indarrean jarraituko dute, sistematizatzeko jasotzen dira bakarrik:

ERREZIBOAK EGITEA. B.K.G. 19 (Oinarrizkoa GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
ZERGABILKETA (Ertaina GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia)  
ZINEGOTZIEN ERREGISTROA (Ertaina GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
TASA ETA ZERGEN GESTIOA (Ertaina GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
ESPEDIENTEEN GESTIOA (Ertaina GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
SARRERA-IRTEEREN ERREGISTROA (Ertaina GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
UDALEKO BIZTANLEEN ERROLDA (Ertaina GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
POLIKIROLDEGIA (Ertaina GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
JARDUERA EKONOMIKOAK (Ertaina GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
KANPOSANTUA (Ertaina GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
KULTURA SUSTAPENA (Oinarrizkoa GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
HIRITARRENTZAKO ARGIBIDEAK (Oinarrizkoa GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
IZATEZKO BIKOTEEN ERREGISTROA (Ertaina GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
NOMINA (Ertaina GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
LUDOTEKA (Ertaina GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
BIBLIOTEKA (Oinarrizkoa GAO - 2005/12/13 - 234. zenbakia).  
EUSKARAREN SUSTAPENA (Oinarrizkoa GAO - 2005/10/18 - 197. zenbakia).  
AHOZKO ONDAREAREN ARTXIBOA (Goi-mailakoa GAO - 2007/02/14 - 32. zenbakia).

Hirugarrena.- Xedapen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinaraziko zaio, horretarako ezarrita dagoen prozedura normalizatuaren bidez, lehendabizi DBEBren Datuak Babesteko Erregistroan inskribatu dezaten eta gero Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren Erregistroan ere jaso dezaten.

Fitxategia: Ondasun Higiezinak

#### *Fitxategiaren Egituraren Deskribapena*

<b>Fitxeroaren izena</b>	Hiri eta Landa Ondasun Higiezinak
<b>Erakunde arduraduna</b>	Eskoriatzako Udala
<b>Erabilera eta helburuak</b>	Hiri eta landa ondasun higiezinaren gestioa eta kontrol fiskala.
<b>Pertsona edo talde afektatuak</b>	Landa eta hiri ondasunen jabeak eta gozamen- eskubidea eta azalera-eskubidea daukatenak eta kontsesio administratiboetako titularrak.
<b>Datuen jatorria</b>	Araudi fiskalak agindutakoaren arabera, pertsonak eta erakundeek derrigorrez aurkeztu beharreko aitorpenak. Ondasun higiezinaren katastrofik ateratako informazioa.



<b>Jasotzeko modua</b>		Paperean aurkeztutako aitordenak. Ondasun higiezinaren katastrofik ateratako informazioa.	
<b>Datuak jasotzeko erabilitako euskarria</b>		Jasotzeko prozeduraren arabera.	
<b>Fitxategiaren oinarritzko egitura</b>		Datu basea.	
<b>Datu motak</b>	<b>Eremua</b>	<b>Klasif.</b>	<b>Oharrak</b>
	Titularra eta helbideak		
	Ondasun higiezinak identifikatzea		
	Jabegoaren koefizientea		
	Erabilerak		
	Balio katastrala		
	Bankuko datuak		
<b>Beste erakundeei datu lagapena</b>	Gipuzkoako Foru Aldundia		
<b>Eskubideen egikaritzeko zerbitzu edo unitatea (atzipen, aldaketa, ezeztapena eta abar)</b>	Eskoriatzako Udala		
<b>Segurtasun maila</b>	Ertaina		



Fitxategia: ISUNAK

*Fitxategiaren Egituraren Deskribapena*

<b>Fitxeroaren izena</b>	ISUNAK		
<b>Erakunde arduraduna</b>	Eskoriatzako Udala		
<b>Erabilera eta helburuak</b>	Isunak kudeatu eta izapidetzea.		
<b>Pertsona edo talde afektatuak</b>	Salatuak		
<b>Datuen jatorria</b>	Trafiko Zuzendaritza Nagusia eta biztanleen errolda.		
<b>Jasotzeko modua</b>	Paperean aurkeztutako aitortpenak.		
<b>Datuak jasotzeko erabilitako euskarria</b>	Idatzia		
<b>Fitxategiaren oinarritzko egitura</b>	Idatzia eta Datu basea		
<b>Datu motak</b>	<b>Eremua</b>	<b>Klasif.</b>	<b>Oharrak</b>
	Titularra eta helbideak		
	Ibilgailuaren datuak		
<b>Beste erakundeei datu lagapena</b>	Trafiko Zuzendaritza Nagusia		
<b>Eskubideen egikaritzerako zerbitzu edo unitatea (atzipen, aldaketa, ezeztapena eta abar)</b>	Eskoriatzako Udala		
<b>Segurtasun maila</b>	Oinarritzkoa		



Fitxategia: ANIMALIA ARRISKUTSUAK

*Fitxategiaren Egituraren Deskribapena*

<b>Fitxeroaren izena</b>	ANIMALIA ARRISKUTSUAK		
<b>Erakunde arduraduna</b>	Eskoriatzako Udala		
<b>Erabilera eta helburuak</b>	Udaleko txakur eta bestelako animalia arriskutsuak kontrolatzea osasunagatik eta segurtasunagatik		
<b>Pertsona edo talde afektatuak</b>	Jabeak		
<b>Datuen jatorria</b>	Euskal Autonomia Erkidegoko txakur errolda eta horretara behartuta dauden jabeek aurkeztutako aitortpena.		
<b>Jasotzeko modua</b>	Paperean aurkeztutako aitortpenak. Telematikoki lortutako datuak		
<b>Datuak jasotzeko erabilitako euskarria</b>	Idatzia eta ofimatika		
<b>Fitxategiaren oinarrizko egitura</b>	Idatzia eta Datu basea		
<b>Datu motak</b>	<b>Eremua</b>	<b>Klasif.</b>	<b>Oharrak</b>
	Titularra eta helbidea		
	Telefonoa		
	Test psikoteknikoa		
<b>Beste erakundeei datu lagapena</b>	Ez		
<b>Eskubideen egikaritzeko zerbitzu edo unitatea (atzipen, aldaketa, ezeztapena eta abar)</b>	Eskoriatzako Udala		
<b>Segurtasun maila</b>	Goi-mailakoa		



Fitxategia: GAZTELEKUA

*Fitxategiaren Egituraren Deskribapena*

<b>Fitxeroaren izena</b>	GAZTELEKUA		
<b>Erakunde arduraduna</b>	Eskoriatzako Udala		
<b>Erabilera eta helburuak</b>	Gazteleku zerbitzua		
<b>Pertsona edo talde afektatuak</b>	14tik 18 urtera arteko gazteak		
<b>Datuen jatorria</b>	Erabiltzaileek beraiek emanda		
<b>Jasotzeko modua</b>	Paperean aurkeztutako aitortpenak.		
<b>Datuak jasotzeko erabilitako euskarria</b>	Idatzia eta ofimatika		
<b>Fitxategiaren oinarritzko egitura</b>	Idatzia eta Datu basea		
<b>Datu motak</b>	<b>Eremua</b>	<b>Klasif.</b>	<b>Oharrak</b>
	Titularra eta helbidea		
	Telefonoa		
<b>Beste erakundeei datu lagapena</b>	Zerbitzua esleitutako enpresa		
<b>Eskubideen egikaritzerako zerbitzu edo unitatea (atzipen, aldaketa, ezeztapena eta abar)</b>	Eskoriatzako Udala		
<b>Segurtasun maila</b>	Oinarritzkoa		





Fitxategia: GEIZ (SIGE)

*Fitxategiaren Egituraren Deskribapena:*

<b>Fitxategiaren Izena</b>	GEIZ (Gestio ekonomikorako sistema integratua).		
<b>Erakunde Arduraduna</b>	Eskoriatzako Udala		
<b>Erabilera eta Helburuak</b>	Pertsona fisiko eta juridikoak udalarekin egindako operazio ekonomikoen identifikazioa eta gestioa.		
<b>Pertsona edo Talde afektatuak</b>	Hirugarren batzuk izenez katalogatutakoak (hornitzaileak, diru laguntza eskatzaileak, lehiatzaileak, tasen zordunak, zerbitzuak emateagatik zordunak, etab.). Hau da, udalarekin operazio ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisiko eta juridikoak.		
<b>Datuen jatorria</b>	Hirugarren batzuk aurkeztutako komunikazioak, Erregistro Orokorrean sarrera egin dutenak. Auzitegiek, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak eta beste Administrazio Publiko batzuek aurkeztutako komunikazioak.		
<b>Jasotzeko modua</b>	Eskuz		
<b>Datuak jasotzeko erabilitako euskarria</b>	Papera.		
<b>Fitxategiaren oinarrizko egitura</b>	Datu Basea		
<b>Datu mota</b>	<b>Eremua</b>	<b>Sailk.</b>	<b>Oharrak</b>
	Hirugarren baten ezaugarriak		
	Operazioaren datuak (fasea, mota, zenbatekoa, ordaintzeko epea...)		
	Zenbaketa datuak		
	Operazioaren datak		



<b>Beste erakundeei datu lagapena</b>	Ez da aurreikusi
<b>Eskubideen egikaritzerako zerbitzu edo unitatea (atzipen. Aldaketa, ezeztapena, etab.)</b>	Eskoriatzako Udala
<b>Segurtasun Maila</b>	Erdi Maila

#### **15.- LEINTZ IBARRAUNDI FUNDAZIOA DESEGIN ETA KITATZEKO PROPOSAMENA.**

Merino jaunaren abstentzioarekin eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkide guztien aldeko botoekin Leintz Ibarraundi Fundazioko patronoen juntari ondorengo erabakiak hartzeko eskatzea erabaki da:

##### **"LEINTZ IBARRAUNDI FUNDAZIOA" DESEGIN ETA KITATZEA**

*Iruñeko Notario Elkargoko Maria del Camino López de Heredia San Julian notarioaren aurrean 2007ko ekainaren 8an Arrasaten emandako eskritura publikoan Eskoriatzako Udalak eta EUSKO IKASKUNTZAK Leintz Ibarraundi Fundazioa sortu zuten. Fundazio hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen ekainaren 17ko 12/1994 Legeak xedatutakoaren arabera eratu zen.*

*Eratze eskritura ez da inskribatu fundazio erregistroan eta fundazioak ez du fundazioaren helbururik garatu sortu zenetik eta egun ezinezkoa da ere helburu horiei hasiera batean aurreikusitako jarduera eta baliabideak aplikatzea.*

*Kontuan izanik fundazioa arautzen duten estatutuetako 33. artikuluko 1. atalak Kode zibileko 39. artikulura igortzen duela eta artikulua horretan aurreikusitako arrazoiren bat dagoela, honakoa, hain zuzen ere, "...helburu hori lortzeko ezin daitekeelako erabili euren jarduera eta baliabideak..." Patronatuak, bertaratutako kide guztien aldeko botoekin, eta estatutuetako 20. artikuluko eskatutako gehiengoaren quoruma osatuta, honako hau ERABAKI DU:*

**Lehenengoa.-** *Leintz Ibarraundi Fundazioa desegin eta kitatzea.*



**Bigarrena.-** 2010eko irailaren 30ean itxitako desegite-kitapen balantzea onartzea.

**Hirugarrena.-** Eskoriatzako Udalaren eta EUSKO IKASKUNTZAren artean erdibana banatzea kitapenaren geldikina, 20.074,54 euro guztira.

**Laugarrena:** Jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak sortuz, erabaki hauen berri Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailari ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen ekainaren 17ko 12/1994 Legeko 3. ataleko 36. artikuluan ezarritakoaren arabera bera baita babesletza funtzioak egiten dituenak.

**Bosgarrena:** Fundazioko presidente Pedro Lasagabaster jaunari ahalmena ematea aurreko erabakiak publiko egin eta fundazioa iraungi arte egin beharreko gestioak egiteko, eta erabaki horiek edozein akats edo zerbait falta izanez gero horiek konpondu, osatu eta zuzentzeko.

## **16.- GAZTAÑADUI 27KO LOKALETAN EGIN BEHARREKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN BEHIN-BEHINEKO KALIFIKAZIOA.**

Silvia Garcia Echeverria andreak, Promociones Gaztañadui S.L.ren izenean, lizentzia eskatu du Gaztañadui 27, behean dauden merkataritzarako lokal bi etxebizitzatzat egokitzeko.

Udal zerbitzu teknikoek eta juridikoek aldeko txostena egin dute bai eremuari buruz bai indarrean dagoen "Hiri lurreko bizitegi-tako eraikinetako lokalak etxebizitzak bilakatzeko udal ordenantzan" ezarritako baldintzak betetzeari buruz.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Eranskinean aipatzen diren zehaztasunekin ERREGIMEN BEREZIKO UDAL ETXEBIZITZA TASATU KALIFIKAZIOA EMATEA BEHIN-BEHINEKOZ PROMOCIONES GAZTAÑADUI S.L.k Gaztañadui 27 zenbakiko 5 eta 6 zenbakidun merkataritzarako lokaletan sustatutako 2 etxebizitzei. Etxebizitzak David Ruiz Garcia arkitekto jaunak 2010eko martxoan idatzitako proiektuaren arabera egokituko dira.

**Bigarrena.-** Behin-behineko kalifikazioa tramitezko administrazio egintzatzat joko da ondorio guztietarako.



## ERANSKINA

### SUSTAPENAREN EZAUGARRIAK

- SUSTATZAILEA: PROMOCIONES GAZTAÑAUDI S.L.
- KOKAPENA: Gaztañadui kalea 27ko 5. eta 6. lokalak.
- ETXEBIZITZA MOTA: Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatua.
- SUSTAPEN MOTA: 2 lokal 2 etxebizitzatarako egokitzea.

### SUSTAPENENKO ELEMENTUAK

- Etxebizitza kopurua, guztira: 2
- Atxikitako garaje kopurua, guztira: 0
- Atxikitako trasteleku kopurua, guztira: 0
- Atxiki gabeko garaje kopurua, guztira: 0
- Zozketaz esleitzeko etxebizitza kopurua: 2
- Zozketaz esleitzeko minusbaliatuentzako egokitutako etxebizitza kopurua: 0

### SALMENTAREN GEHIENENKO PREZIOAK

5. LOKALEKO ETXEBIZITZA, 67,19 m<sup>2</sup>-ko azalera erabilgarria: 153.692,09 euro
6. LOKALEKO ETXEBIZITZA, 63,84 m<sup>2</sup>-ko azalera erabilgarria: 146.867,35 euro

### ERREGIMENAREN IRAUPEN EPEA

Iraunkorra.

### **17.- ESKORIATZAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO HIE 14 "OLAZARRI" BURUZKO ARAU PARTIKULARRAREN LEHENENGO ALDAKETA PUNTUALA EGITEKO DOKUMENTUAREN HASIERAKO ONARPENA.**

Eskoriatzako Udalaren eskariz Ekaitz Uribe Rus arkitekto jaunak "Olazar" 14 HIEri buruzko Eskoriatzako arau subsidiarioen lehenengo aldaketa puntualaren dokumentua egin zuen.

Aurrez derrigorrez egin beharreko tramiteak eginda, 2009ko abenduaren 28an Udalbatzarrak dokumentu hori hasiera batean onartzea eta jendaurrean jartzea erabaki zuen.

Fermin Leceta Belategi jaunak, afektatutako jabe partikularren izenean, dokumentu horretan exekuzio unitate bat mugatzearekin bere desadostasuna azaldu zuen, hau da, unitate horren garapena eta kudeaketa hainbat lagapenen sorburu izatearekin. Leceta jaunak uste zuen 1999ko ekainaren 9an Zorautz baserriaren jabeen eta Eskoriatzako Udalaren artean sinatutako hitzarmenaren ondorioz jabeei inolako kargarik gabeko lurzati eraikigarri bat eman behar zitzaizela.

Erreklamazioa aztertuta eta dagokion txosten teknikoa jasota, eta horrekin bat etorriz, 2009ko abenduaren 28an hasiera batean onartutako aldaketaren dokumentua aldatu egin behar zela



erabaki zen, izan ere, ez baitzeturren bat 1999ko ekainaren 9an Zorautz baserriko jabeen eta Eskoriatzako Udalaren artean sinatutako hitzarmenean jasotako zehaztapenekin, eta ontzat hartu zen dokumentu horrek jarduera isolatu erregimenpean lurzati pribatu eraikigarri bat zehaztu beharko zukeela.

Hori onetsi izanaren ondorio da onartzeko orain aurkezten den dokumentu berria. Dokumentu berriak, bere eskuduntzei dagokienez, ez du eraginik bere garaian URA Uraren Euskal Agentziari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturak Departamentuari bidalitako dokumentuaren edukian. Hala ere, hasiera batean onartutako dokumentuarekiko funtsezko aldaketak jasotzen dira.

Aurrez esandakoan oinarrituta, Lurzoruaren eta Hirigintzako 2/2006 Legeko 87. eta 90-6. artikulua ikusita, Hirigintza Batzorde Informatzaileak egindako proposamenaren arabera, batzarkide guztien aldeko botoekin eta legeak eskatutako gehiengo absolutuaren quorumarekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** 2009ko abenduaren 28an Udalbatzarrak onartutako "Olazar" 14 HIERi buruzko Eskoriatzako Arau Subsidiarioei lehenengo aldaketa puntuala egiteko dokumentua aldatzea 2010eko uztailan egindako dokumentuan jasotako moduan, bertan egindako aldaketa nagusiak izanik mugatutako Exekuzio Unitatea kentzea eta lurzati pribatu bat jarduera isolatu erregimenpeko lurzati pribatu eraikigarri bezala aurreikustea.

**Bigarrena:** Hasiera batean onartutako dokumentuari egindako aldaketa funtsezkoa denez, horren hasierako aldaketa berria egitea eta dokumentu hori jendaurrean jartzea hilabetez, horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta gehien saltzen den egunkarietako batean iragarkia jarri. Epe horretan espedientea jendearen esku egongo da nahi duenak aztertu, eta hala iritziz gero, alegazioak aurkeztu ditzan.

## **18.- EBK AURKEZTUTAKO MOZIOA EUSKADI-KUBARI BURUZ.**

Mozio hau aurkezteko bere taldeak izandako arrazoiak azaldu ditu Merino jaunak.

Ondoren, honako parte hartze hauek izan dira:

Alkate jauna: nik alde bozkatuko dut, baina, Ezker Batuari eta Euskadiko Alderdi Komunistari eskatzen diet sentsibilitate bera izatea euskal preso politikoaren egoerarekiko.

Merino jauna: entzunda!

Pierrugues jauna: nik ere alde bozkatuko dut, eta gainera, hain justu ere atzo Europak Kubari buruzko jarrera bat hartu zen. Deigarria egiten zait Kubari buruz Europak duen jarrera, Aznarrek garatutako politikaren ondorio delako, une honetan Europan gertatzen ari den guztia Aznarrek 1996an edo 1998an erabakitakoaren ondorio delako; eta Europako eskuma da Europako Parlamentuan indar dezente duena ere eta harreman onak izatearen aurka agertzen direnak. Nik bakarrik gogoratu gura dut honetan guztian nolabaiteko hipokresia dagoela, Estatu Batuetan aplikatzen den heriotza-zigorri buruz, bertan giza eskubideak ez betetzeari buruz ez dugu ezer esaten, inork ez du ezer esaten edo Europak ez du ezer esaten. Ez bakarrik Estatu Batuetan, baizik eta Txinan ere bai. Mundu guztiak dioelako Txinara joan behar da! Txinara joan behar da negozioak egitera! Etorkizuna Txina da! eta Txina oso ondo!, Baina, ez zaizkigu axola ez heriotza-zigorriak ez giza eskubideak ez betetzea ez ezer. Hala ere, gero, beti kubatar gaixoek ordaindu behar. Badakigu kapitalari merkatuak axola zaizkiola eta bueno... baina, bai... Frankok ere



harremanak izan zituen Kubarekin nahiz eta blokeoa hor izan. Bueno, eta Fragak berak ere bai. Hala ere, bere kumeetako batek, Aznarrek, ez du titi beretik edan. Ba, alde bozkatuko dut.

Ez dago parte hartze gehiagorik eta bozketa egin da.

Ahobatez, udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Bost preso, Gerardo Hernandez, Ramon Labañiko, Rene Gonzalez, Fernando Gonzalez eta Antonio Guerrero, biziarteko kartzela-zigorrera bezain zigor larrietara kondenatzeko jarraitutako prozedura judicial osoan izandako irregulartasunengatik gure desadostasuna eta gaitzespena adierazi gura dugu.

**Bigarrena.-** AEBtako gobernuari eskatzen diogu bost pertsona horien egoerari irtenbide bat eman arte, gutxienez presoan familiartekoen bisita baimenei buruzko nazioarteko arauak errespeta ditzala, horretarako, familiartekoei herrialdean sartzeko tramite burokratikoak erraztuz.

**Hirugarrena.-** AEBtako lehendakariari eskatzen diogu bere ahalmen betearazleak erabili ditzala bost preso horiek aske utzi edo Kubara eramateko, eta horrela, konponbide horrekin bidegabekeria egoera honi amaiera emateko.

**Laugarrena.-** Erabaki hauen berri ematea Kubak Madril enbaxada/konsulatuari, AEBk Madril enbaxada/konsulatuari eta Kanpo Arazoetarako Ministerioari.

## **19.- GALDE-ESKEAK.**

Ez dago.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat ematen da bilkura zortziak eta hamabost minututan. Eta nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**



En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas del 27 de octubre de 2010, en el domicilio social se reúne la Junta General de Accionistas de ESKORIATZAKO INDUSTRIALDEA S.A., constituida por los miembros del Pleno de la Corporación del Ayuntamiento de Eskoriatza, debidamente convocada con arreglo a lo preceptuado en el art. 14 de los Estatutos Sociales, con la asistencia de los siguientes corporativos : D. Pedro Lasagabaster Armendáriz, Dña. Dorleta Leceta Uribetxebarria, D.Edorta Barandiarán García, Dña. Begoña Eraña Lazkano, D. Carmelo Leceta Abásolo, D. Juan Luis Merino Sanabria, D. Ignacio Pierrugues Barberán y D. Unai Salaberria Múgica. Se encuentran presentes en la Junta 8 miembros, que representan el 72,72 % del capital social.

Preside la Junta D. Pedro Lasagabaster Armendariz, con asistencia de la Secretaria de la Corporación Municipal Dña. Edurne Iturbe Lascurain, designada por los accionistas asistentes a la Junta, pasándose seguidamente a examinar los asuntos del orden del día:

**1º.- Examen de las Cuentas Anuales del año 2010 elaborada por los Administradores y aprobación de las mismas en su caso.**

Tras una breve exposición sobre los asuntos más importantes acaecidos a lo largo del ejercicio 2010 se aprueban por unanimidad de los socios las Cuentas Anuales del ejercicio 2010 .

Tanto la Memoria como el Balance y Cuenta de Pérdidas y Ganancias aparecen recogidos en la documentación social suscritos por el Consejo de Administración no transcribiéndose los mismos para evitar innecesarias repeticiones

**2º.- Acuerdo sobre la disolución y liquidación de Eskoriatzako Industrialdea S.A.**

El pleno del Ayuntamiento de Eskoriatza, constituido en Junta General de Accionistas de ESKORIATZAKO INDUSTRIALDEA,S.A., adoptó con el voto favorable de 8 de sus miembros , que representan el 72,72 % del capital social el siguiente acuerdo:

- 1) La disolución y liquidación de la Sociedad ESKORIATZAKO INUDSTRIALDEA,S.A.
- 2) Aprobar el Balance de disolución-liquidación cerrado con fecha 30 de septiembre de 2010, suscrito por todos los consejeros de la sociedad.

Como quiera que el Ayuntamiento es Accionista Único de la Sociedad y ostenta contra la misma un crédito de 861.611,47 €, se adjudican al Ayuntamiento en pago de su crédito los tres inmuebles que figuran en su activo y que son los siguientes:

- *Heredad en el término de ESTEIBAR, término municipal de Eskoriatza, situada entre la carretera general y el río Deva. Finca inscrita en el Registro de la Propiedad de Bergara Tomo 662, Libro 112, Folio 141, Finca nº 3712 de Eskoriatza. Valorada según bance en 70.735,50 euros.*



